

Sabino Arana jaio zela bihar 120 urte (1)

Mikel Zuazabeitia

Egin, 1985-01-25.

Sabino Arana eta Goiri jaio zeneko ehun eta hogeigarren urtemuga betetzen da urtarrilaren 26an, bihar. 120 urte ez da asko, baina Euskal Herriak azken urteotan daraman aldaketak irentsi ez gaitzan, abertzale mugimenduaren aita eta sortzaile izan zen Sabino haundi eta miresgarriarengana hurbildu nahian jakinduriaz, gogoz eta aberriarenganako maitasunez hitz egingo digun batengana jo dugu.

Gizon hau Martin Ugalde da, idazlari sakon eta ezaguna. Andoainen 1921an jaioa, hogeitau bost urtez Venezuelan herbesteratua bizi ondoren, Donibane-Lohizunera etorri zen. Urdazuri ibai garbiaren ertzean zeukan etxean ezagutu nuen nik Martin, duela hamabiren bat urte. Hegoaldera igarotzerik oraindik ez zuenean. Martinen etxea euskaldun askoren biltoki eta babesza zen garai hartan, Ana Mari bere emazte, Itsaso, Unai eta Ainhara seme-alabekin batera. Gero, Hondarribian jarri zuen bere etxea, eta hemen eta Gasteizko Jaurlaritzan igarotzen du orain bere denbora. Idazle denez, liburu asko idatzi du, bai euskaraz, bai erdaraz.

Elkar hizketarako, hain zuzen, berak eginiko "Historia de Euskadi"n Sabino Aranari buruz egin zuen ikerketaz baliatu naiz, berrogei eta zazpi orri eskaintzen dizkio-eta Sabinoren bizitza eta lanari. Bestalde, Sabinok sorturiko Eusko Alderdi Jeltzalekoa dugu Martin Ugalde, gaur egun Gasteizko Jaurlaritzan euskara arloko buru delarik.

Bere eritziak gure irakurleentzat interesgarri izango direlakoan, eta Sabino Aranari berari omenaldi gisa, hona hemen gure elkarrizketa luzearen bildumatxoa.

Euskadi da euskotarren Aberria

– Sabino Aranaren dotrinak bai al du gaurkotasunik? Abertzaletzat jotzen duenak bere burua, haren irakatsietara makurtu behar al du?

– Zuk eginiko galderan, askotan geure artean darabilgun gai baten hazia datzala uste dut. Alegia, nola behar dugu jokatu? Garai batetan Sabinok esandakoari begiratuta ala orduan esan zituenak gaurkotuz? Nire ustez, haren irakatsiak hitzez hitz har eta segitzea izango litzateke errazena, baina ez bizkorrena. Badira 81 urte eta gehixeago Sabino hil zela, eta harrez gero mundua asko aldatu da, eta gure Herria ere bai, noski. Beraz, inozokeria izango litzateke haren hitzak eta izkribuak zehatz mehatz hartzea.

Hala ere, badira inoiz aldatuko ez diren hitzak eta irakatsiak, adibidez EUSKADI DA EUSKOTARREN ABERRIA. Abertzaletasunaren abiapuntua da, hain zuzen, hori, eta printzio aldaezina, egia hutsa, eta, horrek formulatua, hartzen dena edo ez, baina interpretaziorik gabea.

Kriterio zabala behar dugu gai honetan, eta, Sabinok irakatsiak, gaurkotu, eta, haren izpiritua eta gogoia ezaguturik, gaur zer esan eta egingo zuen aztertu, eta guk ere horixe esan eta egin.

– *Zein izan zen, gehienbat, Sabino Arana: irakasle edo maisu, ala egile?*

– Sabino militantea izan zen, gauza guztien gainerik. Hark ez zuen atsedetik hartu. gure eredu da, gaur ere, Sabino. Bere bizitza oso osoa eskaini zuen Euskal Herriaren alde, bere diru guztia, osasuna, den dena. Familia aberatseko haur zelarrik, sos guztiak gastatu zituen bere ideia aurrera ateratzeko. Hori da balio duena, lehen, gaur, eta beti, eta hiri da gure eredu.

– *Zein da Sabino Aranaren dotrinaren muina?*

– Zalantzarik gabe, hauxe: *EUSKADI DA EUSKOTARREN ABERRIA*, eta hemendik sortzen da, iturri batetik bezala, beste guztia, ideia edo printzipio horren hazkunde.

Arrotzek espainoltasuna dakarte

– *Sabino sarritan eta zorrotz mintzatu zen atzerritar edo arrotzen aurka.*

– Bai, Kontutan izan behar dira zirkunstantzia batzu. Batetik, bizkaitarra zen Sabino, eta probintzia hartan bizi zen. Bigarren gerla karlista amaitu herria zen, eta kanpotik jendetza ugaria zetorren Bizkaira lanera. Arrotzek espainoltasuna zekarten, hizkuntzaz, ohituraz, erlijiorik ezaz... Uholdea bezala etorri ziren espainolak, eta Sabino itotzeko zorian jarri zen. Hori izan zen haren jarreraren arrazoia, euskaldunek ez bait zuten garai hartan ez euskal kontzientziarik ez ezer. Espainol sozialistak partidu, sindikatu eta guzti zetozen. Euskal herria, berriz, odolusturik aurkitzen zen, eta gazteria gehiena, bizirik geratu zenetik, Ameriketara joana. Milaka eta milaka joan ziren hara, herri hau betirako zapaldua, suntsitua, galdua eta amaitua zela pentsatzeraino askok eta askok. Egoera triste horren aurrean, Sabino bakarrik jarri zen, bere anaiaren laguntzaz, baina bakar bakarrik, esateko.

– *Defentsazko jarrera hartu zuen, beraz?*

– Defentsazkoa bakarrik ez, baizik eta Herria nola eratu behar zen ere bai: Euskadiren mugak, hizkuntza, askatasuna, industrigintza... Arlo guztiak ukitu zituen. Miresgarria da, bene-benetan Sabino Arana. Bizitza laburra eduki arren, haren lanaren emaitzak ez du izenik, hainbat eta hainbat egitate burutuz Herriaren alde. Kontu egizu hamar urte besterik ez zuela igaro, heriotzak bere atzaparretan harrapatu aurretik, abertzaletasunera esnatu zenetik. *Larrazabaleko Zina* 1893an egin zuen, Begoñako baserri hartan; eta 1903an, hil zen, Aberriaren sustraiak ongi ezarrita gero.

– *Hala ere, eta berak jasan behar izan zuen eraso, salaketa eta gartzelagatik, pesimismoa ere sartu zitzaion behin baino gehiagotan, ezta?, adibidez "gauzek hala segitzen bazuten, Euskadik ere bere heriotza ezagutuko zuela" esatera iritsi zenean, eta gainera, "mende honen amaiera baino lehenago". Halako zerbait ari ote da gertatzen gure belaunaldian?*

– Baietz esango nuke, arlo batzutan batez ere, hizkuntzan adibidez. Ikus ezazu garai hartatik hona euskarak zer atzerakada egin duen, eta ez hedapenean bakarrik, euskararen aberastasunean berean. Eta euskaratik erdarara zein erraz pasatzen garen, hemen bertan, Hondarribian, arrantzaleak berak. Eta nonahi honelaxe, zoritxarrez. Hori ikusiko zuen Sabinok ere, ardurarik eza, kontzientziarik eza, eta horregatik jarriko zuen mende honen muga. Baina, arma bezala, ere erabiliko zuela uste dut, alegia, ea halako alarmazko hitzak esanik, jendea mugitzen edo esnatzen zen. Sabino politiko zen, eta horrela jokatu zuen, hain idazle eta polemista ona izanik. Gainera, ongi bait zekien, eta hala adierazi zuen berak, euskararik gabe ez zegoela euskal naziorik. "*Beharrezko da euskara nahikoa izan dakigun*", erdararen beharrik gabe.

Independentzia edo burujabetasuna zen Sabinoren helburua

– *Independentzia aldarrikatu zuen sutsu Sabino Aranak. BIZKAYA POR SU INDEPENDENCIA (1892) bere lehen obran garbi agertzen du ideia hau, eta LARRAZABALEKO HITZALDIa (1893) ere argudio bera erabili zuen. GORA BIZKAIAREN INDEPENDENTZIA deiadar eginez. Harrez gero, abertzale asko gara independentziaren aldeko. Zuk zein zentzu ematen diozu Sabinoren ideia honi?*

– Kontu egizu Sabinok gauza horiek esan zituenean, Espainiak Cuba, Filipinas eta geratzen ziren koloniak ia gehienak galdu zituela garai hartan. Orduan, berak garbi ikusten zuen independentzia gure herriak baino ezberdintasun gutxiago zutenak lortzen ari zirela, eta haiek askatasunerako eskubidea bazuten, guk ere gurearena bagenuela haiek hainbat edo gehiago. Gainera, indarrean zegoenean, eta nahiz eta bakarrik egon, erramintak sortzen hasi zenean, idazten, aldizkariak eginaz, bat galtzen zenean edo kentzen ziotenean, beste bat sortu, berriro beste bat atera, etabar; gero, beste instrumento bat ere egin zuen, *Euskal Etxea*: gero, partidua... Bere eraginari bide batzu jarri nahi zizkion, eta bide horiei jomuga garbia jarri behar zien. Sabino gizon argia zen, eta konturatzen zen meta ez zela karlistak baino piskat gehixeago izatean, hori gaintutua zegoela. Berak egin zuen liburuan *Los Carlistas y los Fueros Vascos*-en garbi ikusten du hori. Beste karlista berrik izateko, neokarlismo batetarako? eta ez zen hori haren gogoia. Eta horregatik azaldu behar zuen garbi garbi non zegoen helburuaz, eta helburua independentzia, askatasuna zen, zalantzarik gabe.

– *Helburu hori bera al dugu gaur ere abertzale guztiok?*

– Orain, askatasuna..., askatasuna, nik uste dut, euskaldun abertzaleok, denok nahi dugula, bai orduan, eta bai gaur ere. Baina, bestaldetik, garai hartako kontzeptoa ez da gaurkoa. Alegia, askatasuna bai al du gaur garai hartan zuen sentidu itxi hori? Sasoi hartan, autarkiaren zentzua zuen, alegia, guk ez dugu beste horren edo haren beharrik, gu herri bezala geu biziko gara, geuk egingo dugu lana, geuk jango dugu, badirudi muga itxiak behar zirela. Gaur ordea, soziologia aldetik eta, mundua asko aldatu da, politiko aldetik ere ikusten duzu zer babes aurkitzen duten Europa egiten ari direnek, bai ekialdeko bai mendebaldeko; baina biek badakite estadia ez dela nahikoa, eta neurri

zabalagoan behar dela gaur politikoki irauteko. Beraz, gaur esatea gure Herria estatu bezala eratu behar dela, beste inorekin loturarik gabe alde horretara begiratuta, guk gaur, nahiz eta jomuga bezala askatasunaren bila joan, eta gure buruaren jabe izateko itzaropena eta borroka egin –izan ere abertzale, nahiz ezkerreko nahiz eskubiko, abertzale denak (eta ni abertzalea naiz, eta askatasun osoaren alde nago), borroka hori egingo du, lehen eta orain–, baina askatasun horrek mugak dituela ikusten dut, eta bestearekin bizi behar dugula. Eta nahiz eta, gure legez eta gure agintez, gure Herria osatu, badugula besteekin harremanetan aritzeko, ez bakarrik beharra, baizik nahi eta nahiezkoa ere bai.

– *Baina hori Estatu guztiei gertatzen zaie, hala ere independente dira.*

– Bai, denek dute elkarren beharra, eta guk ere bai. Horregatik Sabino Aranak garai hartan esanak, interpretazio honetaz ikusita, gaurkotasun osoa dute. Eta herri bakoitzak bere buruaren jabe izateko eskubidea bizirik dago, baina ez dute ikusi nahi. Guk, bai, eskubide osoa dugu gu geu izateko. Orain, noski, gaurko mundura egokitu beharko ditugu Sabinoren ideiak.